

Ageriko bilkura

Donostian, 2012ko otsailaren 24an

Donostian, 2012ko otsailaren 24an, Luis Villasante Euskararen Ikergunean, Euskaltzaindiak Ageriko bilkura egin du.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Andres Iñigo Jagon sailburua eta Patxi Uribarren.

Euskaltzain ohorezkoak: Frantziska Arregi eta Koldo Artola.

Euskaltzain urgazleak: Pello Esnal, Xabier Artola, Jose Ramon Etxebarria, Igone Etxebarria, Juan Luis Goikoetxea, Patxi Iñigo, Odile Krutzeta, Jesus Mari Makatzaga, Xabier Mendiguren, Alfontso Mugika, Elixabete Perez Gaztelu eta Paskual Rekalde.

Erramun Osa idazkariordea.

Irene Arrarats batzordekidea.

Euskaltzaindikoko langileak: Amaia Okariz.

Euskaltzaindiaren Corpus batzordeak antolatua, «Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa» jardunaldia egin da Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean. Jardunaldiak Ageriko bilkuraren izaera ere eduki du. Bilkurak Akademiak berriki kaleratu duen izen bereko liburua *–Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa–* izan du abiapuntu. Liburua *Jagon* bildumaren 14. zenbakia da eta Euskaltzaindiaren Corpus batzordeak landu du, Pello Esnal batzordekideak koordinatu duela. Jardunaldian 80 pertsona inguruk hartu dute parte.

2008an, Euskaltzaindiak *Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa* liburua plazaratu zuen. Euskararen egokitasuna bermatze aldera, lan horretan testu-antolatzaileak

leak zehaztu eta sailkatu ziren, helburu bati begira: testu-antolatzaileen erabilera estrategikoa. Hain zuzen ere, liburu haren harian eta haren osagarri dator orain *Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa*.

Liburu honek estrategiak ditu ardatz. Izan ere, hizkuntzaren erabileran dena ez da arau gramatikala betetzea. Behin arau gramatikalak betez gero, eremu handi batean aurkitzen da hizkuntza-erabiltzailea. Hain zuzen, erabakien mundura garamatzate estrategiek. Hala, bada, lan berri honetan euskararen hitz-ordena lantzen da, strategiaren ikuspegitik, hiru elementu jorratuz bereziki: 1) testu-antolatzai-leak, 2) mintzagaia eta galdegaia, eta 3) erlatiboetako esaldiak. Jakina denez, euskararen hitz-ordena izan da, XX. mendean zehar, euskararen aztertzaile eta arautzaileen gai eta kezka nagusietako bat. Bestalde, alde praktikoak garrantzi handia du liburuan.

Andres Iñigo Jagon sailburuak eman dio hasiera jardunaldiari, eta Pello Esnal, Xabier Mendiguren Bereziartu, Andres Urrutia eta Igone Etxebarria hizlari izan dira. Hitzaldien ostean, mahai-ingurua egin da, ondoko hizlariekin: Jesus Mari Agirre, Eusko Legebiltzarreko Itzulpen, Zuzenketa eta Interpretazioko teknikaria; Karlos del Olmo, Donostiako Udaleko itzultzaile-interpretea; eta Xabier Aristegieta Nafarroako Parlamentuko itzultzaile eta interpretea. Paskual Rekalde Corpus batzordeko idazkaria izan da moderatzailea.

Bi zati izan ditu Pello Esnalen mintzaldiak. Lehenengoan, liburua bera aurkeztu du, aurkibidearen harian, atalez atal, esanez zertan den bakoitzaren muina.

Bigarren zatiak, berak esan bezala, bere izenburu propioa ere izan lezake: «Euskara idatziaren auzia, sei puntu eta eranskin batean». Hitz gutxitan, Esnalek adierazi bezala, horixe izan nahi luke: euskara idatziaren gaurko egoera, labur eta bizi azaldua, ondorengo elkarriketaren akuilu.

Pello Esnalen ostean hitz egin du Xabier Mendigurenek, eta haren ekarpena aitzakiatzat hartuz, azken mende erdiak euskararen aurrerabidean eman duenaz hitz egin du: «Sakonera akademikoak alde batera utzi eta mende erdi batez neure idazle- eta itzultzaile-ibilbideari gaingiroki bada ere, begiratu bat eman eta horretaz hitz egitea erabaki dut».

Bere esperientziaz eta berak egindako lanaz mintzatu da, beraz. Ondorio gisa, hauxe azpimarratu du: euskarak urte gutxitan egin duen ibilbidea benetan «harrigarria» da. *Testu-antolatzai-leak. Erabilera estrategikoa* eta *Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa* liburuei buruz, hau esan du: «Horrelako gomendioak eta ezagutzak

idazle on askok garai guztietan erakutsi badituzte ere, milaka pertsona bere buruan estandarizatzen eta normalizatzen ari den hizkuntza batean eskolatzeak, eta gaurko bizimoduak askori testuak idaztea eta jendaurrean eraginkortasunez hitz egitea eskatzen dion garaiotan, inoiz baino hobeki txertatzen dira gure aurrerabide neketsuan».

Andres Urrutiaren ustez, Pello Esnaletan gidaritzapean Euskaltzaindiaren Corpus Batzordeak ondutako liburuak bidea ematen du kezka berezia agerrarazteko performatibo edo gauzatzaileen inguruan. Esan duenez, «izatez, halakoak ugariak dira zuzenbide munduan eta euskarari ofizialtasunak ekarri dizkion hainbat esparrutan ere aintzat hartzekoak».

Hartara, performatiboaren garrantzia azpimarratu du esparru juridikoaren barnean, eta bertako nondik norakoak azaldu; gerora ere, horiek harremanetan jarri ditu, traduktologiaren bitartez, egungo euskararen ikuspegiarekin, gogoeta bi alderdi desberdinetatik bultzatzeko asmoz: bateko, hizkuntzaren ikuspegia, eta besteko, hizkuntza horren erabilera pragmatikoaren alderdia, legearen zereginetan.

Andres Urrutiaren ostean hitz egin du Igone Etxebarriak. Azken honek adierazi duenez: «hizkuntza bere bizilekuari lotuta dago, erabiltzen duen giza taldearen komunikaziobidea den neurrian. Gaurko bizimoduak hizkuntzen arteko eraginak, baita kulturen artekoak ere, areagotu egin ditu. Testuinguru horretan, ardura berezia sortu da tokian tokikoari erreparatu eta gordetzeko ere».

Hizkuntzaren transmisioa bizimoduaren transmisioaren bitartez egiten da. Gaur egun, etxean ez ezik, eskolan eta aisialdiaren bitartez ere egiten da transmisio hori. Hori dela eta, horretara egokitutako materialak prestatzen egindako esperientziaren berri eman du Igone Etxebarriak.

Amaieran, mahai-ingurua egin da. Hauek hartu dute parte: Jesus Mari Agirre, Itzulpen, Zuzenketa eta Interpretazioko teknikaria Eusko Legebiltzarrean; Karlos del Olmo, Donostiako Udaleko itzultzaile-interpretea; eta Xabier Aristegieta, itzultzaile eta interpretea Nafarroako Parlamentuan.

Karlos del Olmok hainbat kontzeptu aldarrikatu du. Batetik, «bi kontzeptu: beharkizuna eta aukera». Bestetik, elementu markatua vs. elementu neutroa. Hirugarrenik, «beste kontzeptu garrantzizko bat dugu giza komunikazioaren unibertsalena: SOS eskatzen duten pertsona guztiek antzera antolatzen dituzte berbak munduan barrena. Euskarari ez zaio arrotz gertaera hori. Idatzitakoaren eta ahozkoaren arteko harremanaz mintzatu da jarraian, eta hizkuntzaren bizitasunaz».

Jesus Mari Agirre prosa idatziaren eremuan aritu da. Hizpide izan du, lehenik, *Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa* liburua, hartatik aipatuz gustatu zaizkion irizpideak eta ñabardurak erantsiz argitalpenean jasoriko gogoeta batzuei. Ondoren, Juan Gartziak proposatutako ordenamenduaren alde egin du (*Joskera lantegi*, 1997, IVAP-HAEE), iruditzen baitzaio «integrala eta funtzionala» dela.

Xabier Aristegietak euskarazko testuetako perpaus konplexuetan agertzen diren ulergarritasun-problema batzuk agerian jarri ditu, betiere hitz-ordenarekin loturik daudenean. Bere ustez helburu garrantzitsua hauxe da: perpaus konplexuak euskaraztean, horiek zatitu eta deskonposatu beharrik ez izateko baliabideetan erreparatzea.

Jardunaldietan egon diren hainbaten iritzi eta galderekin amaiera eman zaio jardunaldiari eta Ageriko bilkurari, 14:15ean.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
idazkaria